

...eta

Kittó!

896 zkia.
2014-VII-4

Auzoko jaiak sasoí betean



konbinatu

GRADUATUAK
+
EGUZKITAKO
GRADUATUAK

97€



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN
DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN
ORDIZIA • TOLOSA

* kontsulta itzazu zentroan kanpainaren
ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza
batzuetan erabili.



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Gorputz kolonizatua gureak. Feministok ez depilatzearen aukera aldarrikatzen dugu, baina onartu behar dut kostatzen zaidala emakumezko gorputz oso iletsua desiratzea. Eta ni -depilatzen ez naizenean- iletsua naizenez, emakume iletsuak gustuko ez izatea, nire gorputza den bezala gaiztosten dudanaren adierazle da"

(JUNE FERNANDEZ, KAZETARIA)

"Euskaldun izatea europartasunaren ñabardura bat da. Gure berezitasuna ez da europartasunaren hezur-mamiei usaina eta kolore berezi-antzekoa ematen dien larmintz mehea baizik. Debatea erlijiotik etikarako bidea egitea eta argitzea da. Batzuek gu kristautasunaren ondorio eta jarraipena garelako diote; beste batzuek diogu haustura gertatu dela"

(JON SUDUPE, SAIOGILEA)

"Kutxabank-en inguruko azken egunotako eztabaidetan batzuk zein besteek 'sustraiak' besterik ez dituzte ahoan: batzuk horiei heldu behar zaiela esateko eta besteek heltzen jarraitzen zaiela esanez. Kutxabank errota dagoela gure enpresetan? Ez behintzat handi eta ertainetan, horiek finantzatzeko BBVA, Santander, Caixa eta Sabadell aurretik daudelako. Aurkakoa gertatzen da kontrako norabidean, herritarrak bai baitaude errota Kutxabank-ekin: pensioei eta EPSV-ko kuotei erreparatuta, Kutxabank-ek guztien %46 du eta alde handia ateratzen die hurrengoei: BBVA-k %14 eta Euskadiko Kutxak %10"

(IGNACIO MARCO-GARDOQUI, IDAZLEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KANPO-LARROSA.- Eskuzabala eta atsegina kanpokoekin, baina ez etxeokoekin. "Etxeko laratzak ezagutzen zaittu zu be, kanpolarrosiorri!".
KANTULARI.- Abeslaria, kantaria. Beti kantuan dabilena, gaztelerazko 'cantarin'. "Kantulari egitten eban erromerixetan eta dantzalekuetan". "Emaztia eban oso kantularixa".

eskutitzak

ALDERDI SOZIALISTA EUSKAL HERRIAN (uztailaren 2an DV-n argitaratutako artikuluaen harira)

Azala behar da gero! Zuek zarete, barren, merkatu plaza hondamendira eraman duzuenak, lehenengo bere kabuz hiltzen eta, ondoren, inolako irtenbiderik eman gabe Rialton betiketozten lagata.

Orain dendari txikiak eta baseritarrak zigortu nahi dira eta ERRUDUNAK ZARETEN ZUEK, noiz zigortuko zaituzte? Zuen besaulkuei eusten diezue, zuen liberatuen soldatekin (7 x 50.000 euro urtean) pentsa zen-bat alokairu ordaindu litezkeen.

Herritarren parte-hartze prozesuaren txostena jaki-

tera ematea eskertuko nizueke, nik bertan parte hartzen izan nintzelako eta denbora osoan merkatu plazaz egin zelako berba.

Bestalde, Miguel de los Toyosek aipatzen duen legea 2014ko urtarrilean, bakarrik PP-ren aldeko botoekin onartu zela argitu nahi dut, alderdi sozialistak kontrako botoa eman zuen-eta. Ah! Hori Madrilan, hemen praktikan ipintzen baitute, Eibarren Gobernu Batzordean PP-rekin batera daudelako izango ote?

M.G.A. (15.341.151 i)

Aurreko zenbakian kaleratutako "Urrats handi bat eman dugu" gutunean akatsa egin genuen beratu sinatzean: Ernai ipintzen bazuen ere, Gure Esku Dago-ena zen idatzia. Hemen doa berriro aipatutako gutuna, benetako sinadurarekin.

URRATS HANDI BAT EMAN DUGU

Ekainaren 8an, giza kate bat osatuta Durango eta Iruñea elkartzea lortu genuen. Euskal herritarrok sentitu, ikusi eta frogatu ahal izan genuen gauza ginela elkarrekin biltzeko eta oinarri beraren gainean urratsak ematen hasteko. Ilusioa eta poza antzematen zen jendearen aurpegietan eta aldi berean, etorkizun berri bat irudikatzen gogoa. Sentsibilitate desberdineko milaka herritar aktibo, kalera irten ginen eskua ematera argi utzi nahiaz, gure etorkizuna geuk erabaki behar dugula.

Zer izan eta zer eraiki nahi dugun aldarriaren inguruan, eibartar asko batu ginen Bergarako 31. Kilome-

troan. Beste batzuei ordea, Euskal Herriko beste gune batzuetan egotea egokitu zitzaizena eta, arrazoi ezberdin direla medio, egun horretan parte hartu ezin izan zutenak ere badira. **Denoi mila esker eta zorionak!**

Era berean, ekainaren 8an argazki lanetan aritu ziren guztiak barru-barrutik eskertu nahi ditugu eta "Eta kitto" aldizkariko lan taldeari ere, eskerrak eman egingdako behar bikainagatik.

Urrats bat eman dugu, hemendik aurrera erabakitze eskubidea gauzatu ahal izateko denon esku dago urratsak ematen jarraitzea. Animo eta laster arte!

GURE ESKU DAGO / GAZZA ZATI BAT

HILAREN 11-KO DENBORALDIKO AZKEN ALEA

Datorren asteko barixakuan, **hilaren 11n**, kaleratuko dugun alea opor aurreko azkena izango da. Edozein berri edo zorion agur kaleratu nahi baduzue, euki kontuan aipatutakoa. Barkatu eragozpenak. Oporretatik bueltan, **irailaren 5ean** izango duzue hurrengo alea buzoietan: ohiturari jarraituz, Arrateko jaiak iragarriko dituen izango da.

ERREDAKZIOA



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Giro edarrian ospatu zittuen sanpedruak

Karmen kalia ez dabe sanjuanen osteko bixamonerako astirik euki, aurreko aste-buruan sanpedruak ospatzen ondo baiño hobeto ibilli ziran-eta. Barixakuan hasi eta domekara arte egunero ekitaldi diferentietan parte hartzeko aukeria euki eben herrixaren beheko partian ibilli ziranak, azken urtiotako martxari jarraituta Beheko Tokia jubilau etxeakuk preparamu eben jai egitarau betiari esker. Bari-xaku arratsaldia batez be umiendako antolatutako joko eta jarduerekin bete



eben eta zapatuan, bestiak beste, Nathali eta Sebastian bikotiaren, Kaleetan Kantuz abesbatzaren eta Tukan orkestrakuen musikarekin gozatzeko aukera bikaiña egon zan. Eta domekan, San Pedro

egunian, Karmen kaleko parketik alden-duta urtero lez Akondia basarrixan mezia eta konjuria egiñ eben eta Karmengo Amaren elizan Eibarko Koru Gazteak girotutako mezia ospatu zan.



Udako ordutegixa Portalea eta Pegoran

Uztailla eta abuztuan udako ordutegixa egongo da indarrian Portalean eta, beraz, datozen astiotan ordutegi berezixan zabalduko dittue Portale barruko instalaziñuak: julixo osuan 09.00etatik 20.30xetara zabalduko dabe, astelehenetik barixakura bittartian (hillaren 25ian eta 31n itxitta egongo da, baiña). Eta abuztuan bakarrik goizez, 09.00etatik 13.30xetara egongo da zabalik astebarruan (abuz-

tuaren 11n eta 17xan, baiña, ez dabe zabalduko).

Eta Pegora herritarren zerbitzurako buleguak be udako ordutegixan zabalduko dittu atiak: uztaillian eta abuztuan 08.30xetatik 13.30xetara zabalduko dabe bulegua (astelehenetik barixakura). Telefono bidezko kontsultak eta bestelakuak egitteko, barriz, 08.00etatik 14.00etara deittu biharko dau jendiak 010 edo 943708400 zenbakixetara.



Dendarien Elkartekuen ekaiñeko zozketak

Eibarko Dendarien Elkarteak zozketa bi egin dittu ekaiñian. Batetik, alkarteko dendetan zeozer erosi eben bezeruen artian Eibar Kirol Elkarteko 15 akziño banatzeko zozketia egiñ eben ekaiñaren 17xan eta erretratuan ikusi zeinkien moduan, saridunak handik hiru egunera jaso eben premixua. Fernando Rubio (Guby mutilak), Lourdes Uriarte (Baglietto), Arrate Balentziaga (Kiñu), Jesu Urkiza (Luci illeapaindegixa), Sandra Hernandez (Villalba), Ainara Jauregi (Fedeopticos Igmar), Luis Jimenez (Oberena harategixa),



Juan Carlos Bustos (Eibar gasolindegixa), Jesus Quintana (Vieco), Aitor Prieto (Askasibar), Conchi Saez (Leder), Laura Martinez (Edurne illeapaindegixa), M^a Luisa Gomez (Goiera Calbeton), Jorge Elordi (Azitain gasolindegixa) eta Ofeilia Muñoz (Zentral Optica) izan ziran irabazliak. Eta, horrekin batera, urte osuan egitten daberen moduan ekaiñian be 1.000 euroko erosketa txartela oparitzeko zozketia egiñ eben Dendarien Elkartearen txartelarekin pagau ebenen artian eta sarixa Agurtzane Solabarrietan Akarregiri egokittu jakon.


Sasixak garbitzeko biharrian

Ekaiñaren 10etik herrik ohainbat tokittan pillatzen jua diran sasixak kentzeko biharrian dabiz. Udalak aditzera emon dabenez, "sasixak, herritareri traba egittiaz gain, itxura eskasa emoten dabe eta, horregaittik, uda aillegatziar urtero hasten dira belar txarrak kentzeko biharrian. Azitain eta Barrena aldian hasi ziran eta handik Amañara jua zi-

ran bihargiñak, baiña auzoko jai-xak dirala-eta atzera be Azitainñera bueltauko dira, datozen egunetan hango industrialdia garbitzen amaitzeko. Hórrek amaitzian Unbera juango dira eta handik herriko erdialdera salto egingo dabe, Mekola, Ardantza, zezen-plaza eta inguruak garbitzeko. Biharrak basarri auzuetan amaittuko dittue.

Arma Museuaren mendeurrena

San Juan egunian bete zittuan 100 urte Arma Museuak, atiak lehelengoz 1914. urteko ekaiñaren 24an Armerixa Eskolan zabaldu zittuan-eta. Hain zuzen be, gaur egunian Portaleko 5. pisuan dagan Armagintzaren Museuaren oiñarria "arma bilduma zoragarri hura" izan zala diñue museoko arduradunak. Lehen museua zabaldu zala mende bat bete dala ospatzeko eta, bide batez, sorreran parte hartu ebenak omentzeko asmuarekin hainbat ekitaldi antolatu dittue: "Ezer baiño lehen, Armeria Museuak 1914. urtian argitaratu eban lehen katalogua interneten eskuragarri ipiñi dogu eta, horrekin batera, www.armia-eibar.net webguniari atal barrixak gehittu detsaguz (bestiak beste, erakusketak atalian dokumentu-funtsa erakusketa birtuala sortu dogu). Eta udazkenerako museoko fonduetatik aukeratuko dittugun pieza barrixekin osatuko dan erakusketa iraunkorra inauguratzeko asmua be badakagu".



Eskola-jangelak udan zabaltzeko eskaeria

Oin dala gitxi sortu dan Eibarko Podemos-Ahal Dugu taldekuak, Eibarko Bilduk egindakuren bidetik, ikasturtia amaittu bada be herriko eskola-jangela batzuk udan zabaltzen segitzeko eskatu detse udalari. Izan be, askok kontrakua pentsauko daben arren, "beste herri askotan pasatzen dan moduan Eibarren be seme-alabak elikatzeko gauza ez diran famelixak daguazelako". Gauzak holan ei dagoz eta, gaiñera, ezkutuko errealidadiaren barri emoteko moduko



datuak hezitzailliak, irakasliak, Caritas eta beste erakunde batzuetako ordezkariak badittuela diñue. Horregaittik, egoera ekonomiko larrixa daken famelixatoko umiak eskoletako jangeletan jan dabenari esker ikasturte osuan modu egokixan elikatu dirala ikusitta, opor sasoiari jangeletako batzuk zabalduta umiak ondo jaten segitzeko aukeria eukiko leukiela pentsatzen dabe, hortik jangelak zabaltzeko eskaeria.

Ekintzailliendako laguntzak

Debegesak urriaren 15era arte luzatu dau ekintzailetza sustatzeko diru-laguntzak eskatzeko epia. Garapen agentziak 120.000 euro bideratuko dittu enpresa barrixak sortzen dabeneri laguntzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak emon detsan laguntasunari esker. Diru-laguntza jaso nahi dabenak www.debegesa.com webgunian topauko dittu eskaeria egitteko jakin biharreko guztiak. Edozelan be, diru-lagun-

tza jaso ahal izateko, bestiak beste, enpresa barrixak 2014ko urtarrillaren 1etik aurrera ekonomia-jardueren gaiñeko zerga pagauta eukitzia eta Gizarte Segurantzari altan egotia eskatzen dabe. Diru-laguntzak negozio barrixa zabaltzeko egin biharreko inbersiñuetan laguntzeko bideratuko dira (inbersiñuen %75era artekuak izango dira, gehixen jota) eta bakarrik Debabarreneneko enpresendako izango dira.



autuan

DISEÑO-SARIXA

Bartzelonan bizi den Gorka Aizpurua eibartarrak ADG-FAD Arte Zuzendari eta Diseñadore Grafikuen alkartian antolatzen dittuen Laus sarixetan atzera be premixua lortu dau: "Herror" izenburukuari esker zillarra jaso barri dau diseñadore gaztiak.



SANJUANETAKO ZOZKETIA

Jaixak Herrixak Herrixandakok sanjuanetan txosnetan egindako zozketan, lehenengo sarixia 3.711 zenbakixa dakanak jasoko dau eta bigarrena, barriz, 0481 zenbakixa dakanarendako izango da.

MILAGROS ZUBIA GOBANTES

2014ko ekainaren 28an hil zen, 80 urterekin




FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA

gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Gipuzkoako Diputazioak urrezko domina eman zion Benito Lertxundiri orain dela egun gutxi eta, ekitaldi berean, urrezko plakak banatu zizkien Beroa harrera familien elkarteari eta frankismoa jasan zuten andrazkoei. Azken horien izenean, Frankismoan Ordena Publikoaren Auzitegiaren errepresioa eta bortizkeria jasan zuten emakumezkoak ordezkatzuz, Amaia Aseginolaza Baionan bizi den eibartarrak hartu zuen plaka eta ekitaldian "injustizia hura gogoratu dezagun, inoiz berriro ez gertatzeko" esan zuen, honelakoak gaineratuz: "Errekonozimendua beharrezkoa da gure seme-alabentzat eta bilobentzat, iraganeko mamuak uxatzeko eta etorkizunari baikortasunez begiratzeko". Berarekin izan gara telefonoz.



AMAIA ASEGINOLAZA:

"Minak lasaitzeko bada ere, ona da gertatutakoa kontatu eta ondorengoei jakinaraztea"

- Zer moduz joan zen Gipuzkoako Diputazioak eskainitako omenaldia? Espero zenuen halakorik?

Oso ondo: eroso joan zen, aurretik urduri bageunden ere. Ez genuen halakorik espero, baina bat-batean gonbidatu gintuzten eta pozik hartu genuen gonbidapena. Frankismoaren ondorioak jasandako 25 bat emakume izan ginen eta atsegina izan zen. Batzuk bai, baina guzti-guztiak ere ez nituen ezagutzen, garai ezberdinak bizi ditugulako.

- Zelako balioa ematen diozu horrelako ekitaldi bati?

Balioa... ez dakit. Uste dut garrantzitsua dela zer gertatu zen jakitea eta horrelako ekitaldiek aukera ematen digute gure ondorengoei transmititzeko. Historia zati bat da eta horren parte izan gara. Bestela, gaur

egungo ikuspuntutik bakarrik begiratuta, sinestezina egiten zaie askori nola gertatu ziren halakoak.

- Zuek jasandako guztia ahaztuta dagoela irizti diozu?

Ahaztu, sekula ere ez da ahazten; baina bai dagoela albo batera lagata. Hori bai: ez badira ahazten ere, beharrezkoa izaten da gaintetik pasatzea bizitzan aurrera egin behar badugu. Zaila da ahazte edo baztertze hori onartzea, erabat itzalean lagatzea ezin da onartu, gertatutakoak baduelako bere garrantzia; baina ezin zara horri lotuta egon eta aurrera jo behar duzu.

- Zenbat aldiz atxilotu zintuzten? Zelako traktuua jasan zenuen?

Hirutan, gazte-gazte nintzela hasita. Trautuari begira, bistan da erlatiboa izaten dela:

askotan mingainarekin min gehiago egiten baita jipoiekin baino. Nik ez nuke esango torturarik jasan dudarik, ordu laurden luzeak pasatu ditudan arren. Bestela, deportatu egin ninduten, Espainiako herrietatik sakabanatu... Baina, bueltan, herritarrek ginen moduan ezagutu gintuzten, guregatik zabaldutako mamu beltzak hori besterik ez zirela jakinda.

- 42 urte Baionan bizitzen. Jarraitzen duzu harremana izaten Eibarrekin?

Bai, hor izaten naiz noizbehinka. Gurasoak bizi izan diren bitartean gehiago -ama ere orain dela gutxi galdu dut-, baina jarraitzen dugu bisitatzen. Hori bai, gero eta jende gutxiago ezagutzen dut eta ez dut bizi askorik egiten: lehengo ezagunekin, batez ere.

- Zelakoa zen zu gazte zineneko Eibar?

Desberdina, hori bai. Gu euskalzaleak ginen batez ere, euskarako langileak. Hori jaso nuen gurasoengatik eta betidanik eraman dut odolean. Ausartak bezain inuzenteak ginela esango nuke: askotan bi lerroen artean irakurtzen asmatzen ez genuenak.

lheslari moduan heldu zen Baionara orain dela 42 urte eta han bizi da egun. 1966ko Maiatzaren 1eko manifestazioan parte hartzeagatik "saso hartako 40.000 pta.ko" isuna ordaindu ez eta Martutenen eman zuen hilabetea. Gero, Meliton Manzanas hil zuteneko ondorengo sarekadan hartu eta Valladolideko Iscar-era deportatu zuten. Burgoseko epaiaren garaian auziperatu eta 16 urteko zigorra ezarri zioten.



Ekainaren 12an banatu zituen Gipuzkoako Diputazioak urrezko domina eta plakak. Amaia Aseginolazak (3.a goiko lerroan, eskumatik hasita) jaso zuen horietako bat.



Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 256 100

POLICLINICA GIPUZKOA

KIRURGIA OROKORREKO KONTSULTA BERRIA EIBARKO Kontsulten Zentroan:

Telefona: 943 00 28 00
www.policlinicagipuzkoa.com



Jose Luis Elozegi eta Javier Murgoitio
doktoerekin, ASTEAZKENERO

Obesitatearen kirurgia ez da estetika kontua

Obesitatearen kirurgia behar duen paziente lodiaren profila honakoa da: 15 eta 60 urte arteko paziente, 40 kg/m²ko edo gehiagoko gorputz-masaren indizea duena, dietekin pisua galtzen ahalegindu arren lortu ezin duena, egoera psikologiko onean dagoena eta kirurgia-arrisku txikikoa.

“Obesitatearen kirurgia tamaina handiko kirurgietarako da egokia, obesitate morbidoetarako. Ez da estetika kontua eta, edozein ebakuntzak bezala, baditu bere arriskuak”, azpimarratu dute Javier Murgoitio eta Jose Luis Elozegi kirurgia orokorrean eta digestio-kirurgian espezialistek.

Ebakuntzen ondoren, emaitzak, orokorrean, guztiz onuragarriak dira: *“Pazienteak pisua galtzeaz gain, gehiegizko pisuak eragindako gaixotasun askok hobera egiten dute, horien artean diabetesa, hipertentsioa, kolesterola...”,* diote.

Bide berean, gogoratu behar da, elikadura-ohiturak aldatzeko heziketa-terapiari esker ere lor daitekeela arrakasta; horregatik da garrantzitsua Poliklinikak duen moduko diziplina anitzeko talde bat *“emaitza onak ziurtatzeko”*. Espezialistek diotenez, talde horrek baloratzen ditu pazienteak izan ditzakeen arriskuak, egon daitezkeen arazo kirurgikoak, haren dieta eta egokitzapen psikologikoa.

Obesitatearen kirurgian erabili ohi diren gutxien inbaditze-ko teknikak bitan sailkatzen dira: alde batetik, urdaila txikitzen dutenak (baloi gastrikoa, banda gastrikoa, POSE eta sleeve gastrikoa), eta bestetik, bypass gastrikoa egiten dutenak (gordailua txikitzen da eta janariaren zati bat heste meharretik lodira pasarazten da).

Kasu bakoitza bakarra dela gogoratu eta gero, Gipuzkoako Poliklinikako diziplina anitzeko Unitateko espezialistek sleeve gastrikoa eta bypass-aren alde egiten dute, gaur egun teknirik seguruenak direlako eta emaitzarik onenak ematen dituztelako. *“Ebakuntzaren ondoren pazientearen hobekuntza fisikoa eta mentala nabarmena da, eta haren bizitza-kalitateak ere hobera egiten du”*.



Policlinica Gipuzkoa
EIBAR
943 256 100

Amañako jaixak asteburu osoa hartuko dabe

Aurreko barixakuan aurkeztu eben auzoko Kaja Laboralian, betiko moduan, asteburu hau eta hurrengua hartuko dittuen Amañako Jaixak. Jose Antonio Alberdi "Gomak" egin zittuan aurkezpen lanak Amañako Jai Batzordiarene izenian eta ekitaldixan hainbat erakunde eta personalidade omendu zittuan, "hórrek egindako biharrara, modu apalian bada be, errekonozitzeko". Holan, Eibar



Porco Bravo taldea izango da gauroko protagonistetako bat.

Foball Taldeko Xabi Iuretagoiena atezaiñak, Juan Luis Mardaras presidente-ohiak, Angel Fernandez Zapico utillerruak eta Javier Sarrionaindia zuzendaritzako kidiak komisiñuaren oroigarria jaso eben eta, horrez gain, Revista Eibarrek "urte askuan egindako aportaziñua" sarritu nahi izan zeban Gomak, Margari Olañeta publikaziñuaren gaur egungo zuzendarixari bere senarra izandako Jose Mari Kruzetaren erreprodukziñua eta brotxe bat oparittuta.

Programaziñuari dagokixonez, gaur 19.00etan botako dan txupinazuak ipiñiko dau egitaraua martxan. Ipurua Gimnasia Erritmikakuak jaurtiko dabe eta, jarraixan, kalejiriak, umiendako jokuak eta entzierro txikiak beteko dabe tartia, gabeko musika kontzertu itzelari ekiñ aurretik: hor Berriozarreko Malaputa, Barakaldoko Porco Bravo eta Getxoko Dead Bronco taldiak berotuko dabe, "ondo berotu be", goizaldera arte iraungo daben ikuskizuna.



Amañako Jai Batzordiak hainbat errekonozimendu egin zittuan jaixen aurkezpenian. SILBIA



Adin guztietarako jaixak

"Ume, heldu edo nagusi izan, danak hartzen doguz kontuan programia egitterakuan". Horri jarraitzen detse antolatzailiak eta, holan, bixar umien eta helduen danborradak izango dira, Amaña-Urko-Amaña krosarekin eta su artifizialarekin batera. Etzi, bestal-

de, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots paillazuak eta Golden Apple Quartet izango dira, txorizojana eta pintxo-poterekin batera. Hurrengo asteburuan auzoko jubilatueendako bazkaria eta bertso-afarixa izango dira ekitaldi nagusixenak (jai-xetako egitaraua 20. orrialdian dakazue).

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net

fM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Hamabi orduko musika jaialdia Elgoibarren

Zapatuetan Eibartik Elgoibarrera joateko ohitura oso hedatuta egon da betidanik gure herriko gazteen artean eta bihar, gainera, askok aitzakia bikaina izango dute, musika elektronikoari eskainitako jaialdia hartuko baitu aldame-neko herriak: Elgoibar Dance Festival. Hamabi bat ordutan musika elektronikoa jaun eta jabe izango da Albitxuri industriagunean, jaialdian parte hartuko duten hamabost bat disko jartzaileen saioei esker.

Jaialdia Kida Events elkarte-ko David MK eta Xhis Rios elgoibartarrek antolatu dute, Txaridunaren laguntzarekin eta, diotenez, biharkoa "musika elektronikoa maite dutenentzat aukera bakarra eta bikaina izango da, kartelak disko jartzaile onenetako asko batzen ditu-

eta". Aurreratu dutenez, "Euskal Herriko antzoki ezagunetan pintxatzen duten DJ-ak etorriko dira. Euretako asko, gainera, Elgoibarren ezagunak dira, lehen pausoak Guass dantzalekuan eman zituzten-eta". Iñigo Diaz Kriptonita, Patt, Carlos Gonzalez, Juanan, B. Gutierrez... eta beste hainbat DJ-rekin batera, jaialdiko antolatzaileek eurek ere musika "pintxatzen" jardungo dute.

Hamabi ordu jarraian

Elgoibar Dance Festival jaialdia 15.00etan hasi eta goizaldeko hirurak aldera arte iraungo du. Beraz, jaia egun argiz hasi eta gauetz, iluntasunean amaituko da eta horren aitzakiarekin jaialdirako "eguzkipean ezer ez da berdin" goiburua aukeratu dute antola-



David MK eta Xhis Rios elgoibartarrek antolatu dute jaialdia. BARREN

tzaileek. Eszenatokia prestatzeko, berriz, Belgikako Tomorrowland jaialdia eredutzat hartu dutela azaldu dute eta, musikarekin batera hainbat sorpresa egongo direla ere aurreratu digute. Sarrerak 15 eurotan salgai daude, Eibarren

Oishi tabernan, Elgoibarren Txaridunaren eta Ermuan Sagar-ran. Interneten, edf.ticketbox.es helbidean eros daitezke eta nahi duenak bihar erosteko aukera izango du (18 eurotan). Sarrera bakoitzeko kamiseta bat oparituko dute.



La Sallekoen ikasturte amaiera bikaina

Irakaskuntza Sustatzeko Elkargoak (ISE) eta La Salleko zuzendaritzak ikasleak zoriondu nahi dituzte, "2013-2014 ikasturtean izandako emaitza onak direla-eta". Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiete irakasle, familia, IGE, laguntzaile eta komunikabideei "egindako lanarengatik eta gure hezkuntza proiektuan eragile izateagatik. Opor zoriontsuak izan ditzazuela guztiok!".



CENTRO OM ZENTROA
Zezenbide, 1 - beheka ezk. - EIBAR -
Ordua hartzeko: 627 916 746

Felipe Arnaz




- Reiki Maisua: 2.967 Kolegiatua
- Kolegiatua Fenaco 2.999-an
- Fisioterapia Laguntzailea
- Reflexologia
- Teknikoa Kiromasaje eta Osteopatian (5.644 Kol.)
- Radioestesia Terapeutikoa (Emozioen askapena)
- Hastapena Reikira: I, II eta III Mailak eta Magisteritza



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Gazteen euskara erabilerarekin arduratuta

Sanjuanak hasi baino lehen aurkeztu zituzten "Euskararen erabilera Eibarko gazteen artean (2013)" ikerketaren emaitzak ...eta kitto!-n. Euskara elkarteak, Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta egindako ikerketaren emaitzak, oso adierazgarriak izateaz gain, kezkarriak ere badira: euskera ezagutzak urtetik urtera gora egiten duen arren, horrek ez dauka islarik gazteen erabileran. Hori zergatik gertatzen den, urteetan dabilta horretarako arrazoi bila beharrea eta gure herrian ere gaiari heltzeko sasoia ailegatu da, irailetik aurrera eragile guztien parte-hartzea izango duen prozesuari ekingo zaio-eta.



Fermin Lazkano eta Ainara Labado aurkezpen egunean. SILBIA

Azterketa egiteko lau lagunek 618 lagun elkarrizketatu dituzte, galdetegi zehatzari jarraituta. Iazko ekainaren 10etik 21era kontrol taldeari egin zitzaizkion galderak eta uztailaren 1etik 30era, berriz, lagin osoari zabaldu zitzaion galdetegia. Erantzunak aitorten bidez jaso zituzten, hau da, galderari erantzuten joan ahala, galdetzaileak esandakoa idazten joaten zen eta, metodologia hori erabiltzean fidagarritasuna %96an kokatzen dute adituek.

...eta kitto! Euskara Elkartearen helburua euskararen erabilera sustatzea izanik, horretara ailegatzeko urte osoan hainbat jarduerak eta programa garatzen dituzte elkartean, tartean 2000. urteaz geroztik udalak eskatuta urtero egiten den euskararen erabileraren inguruko kale neurketa. **Ainara Labado** normalizazio arloko arduradunak azaldutako ari jarraituta, "urteroko kale neurketetan jendearen adina, herriko zonaldea, testuingurua eta helduen presentzia izaten ditugu kontutan, besteak beste, eta horrez gain gazteen erabilera modu berezitan neurtu ohi dugu". Urtetik urtera batzen joan diren datuek erabilera kontuetan adinak zeresan handia duela eta gaz-

taroa estrategikoa dela oso argi laga dute: "Umeen erabilera nahiko altua izatetik (%42) gazteen erabilera ertain- baxua (%24) izatera pasatzen da, helduen erabilera baxura (%16) gerturatuta. 2011an hasi ginen gai honekin kezkatzen eta horretan sakontzeko premia somatzen. Izan ere, ume izatetik heldu izaterako bide horretan 'zerbait' gertatzen da eta, gainera, 'zerbait' horren ondorioz jaisten da erabilpena. Gaitasuna badago, zergatik ez dugu berba egiten? Euskara bizitzako funtzio guztiak betetzeko gauza da? Norekin egiten dute gazteek euskaraz? Non? Zerbait? Horiei eta beste galdera batzuei erantzuna bilatzeko nahiak bultzatuta, ikerketa egiteko premia ikusi genuen eta 2012an, hainbat aditurekin biltzen ibili eta gero, ikerketaren gaia definitu genuen: euskararen erabilera Eibarko gazteen artean 2013an."

Labadok argitu digunez, "gazteak aukeratu izana ez zen kasualitatea izan, beraz. Benetan estrategikotzat dauzkagu, etorkizuneko helduak izango direla albo batera lagata ere, gaz-

teek erabilera esparru gehien ikutzen dituen adin-taldea ere osatzen dutelako. Hezkuntza, aisialdia, lan mundua, familia, sare sozialak... Horregatik, esparru horiek guztiak aztertu ahal izateko, gaztaroa modu zabalean ulertzea erabaki genuen, 18- 28 urte bitarteko gazteei arreta ipinita". Ezin da ahaztu, gainera, gaztaroen finkatzen direla hizkuntz-ohiturak.

Bestalde, Labadok argi laga nahi du azterketatik haratago joan nahi dutela, "hutsune eta premiak antzemateaz gain eragitea ere nahi dugu-eta". Horretarako, ikasturte hasieran, irailean, bigarren aurkezpen bat egiteko asmoa daukagu. Izan ere, ahalik eta eragile gehien batu nahi dugu, denek elkarrekin parte-hartze prozesua hasteko. Prozesu horretan bakoitzak bere proposamenak egin eta lantzeko aukera izango du eta, horregatik, bertan landutakoa ahalik eta aberasgarriena izateko, parte-hartzea ahalik eta zabalena izatea komeni da. Gure ardurarekin bat egiten duten guztiak gonbidatu nahi ditugu aurkezpen zein erabilera areagotzea helburutzat duen prozesuan parte hartzera animatu daitezen, batez ere gazteekin eta euskeraz jarduten dutenei, ikastetxei, aisialdi zein kirol taldeei... orohar, edozelako eragileei".



XOLE AZKUE FERNANDEZ

– 1. urteurrena: 2013-07-03 –



Herio iritsi zen
baina ordurako
zu hegari zinen.

Gure oroimenean sendo



MATRIKULA ZAITEZ!

Uztailaren 9tik 16ra

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta pieza fabrikatzen dituzte

Mekatronika Industrialia

Robotaren muntaiak eta mantenketak arduratzen dira

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa


Robotaren hari gabeko komunikazioak, ordenagailu muntaiak eta sistema eragileen instalazioak arduratzen dira

Automatizazioa eta Robotika Industrialia

Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoak eta energiaren hornizioak arduratzen dira



www.mondragon.edu/gmhz

FIRSTSTOP
PNEUMATIKOAK ETA MEKANIKA EXPRESS

OTAOLA HIRIBIDEA, 24. EIBAR. ☎ 943 201 415.

ZURE PNEUMATIKOAK PREZIORIK MERKEENEAN



ETA EZ EMAN **BIRA GEHIAGORIK**

Jarrai gaitzazu hemen: [f](#) [t](#)

Muntaketa + Oreaktzea
+ Balbula + Zergak **DENA BARNE**

www.ofertasfirststop.com

Eskaintza horretaz baliu zaitezke abuztuaren 31ra arte, eta tailerrean muntatutako pneumatikoetarako baino ez da. Salmenta prezioan, muntaketa, orekatzea, balbula, pneumatiko erabilien kudeaketa-tasa (1619/2005 Errege-dekretuaren arabera) eta BEZa sartuta daude. Ez dira sartu: nitrogenoaren bidez puztea eta elikatzea. Baldin baditugu jarriko ditugu. Ezin dira Talde eta Konexio Programekin metatu.

+ OSASZUN GAZDA

Dentistak

ARAT Hartz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA



Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. esk. Tfn: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfn. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfn. 943 20 34 46 Tfn. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hartz klinika

Asko dira
gure hartz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfn: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Tfn.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tfn: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hartz-Klinika
Ane Gastesi



Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia. OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

+ OSASUN GAZDA

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairatea
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• **Miopia ebakuntzak**
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

**Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88**

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

**Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)**

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA**

Arrate Garitaonandia

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK**

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com



**Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa**

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

Deltecoko triatloilariak Lekeition eta Donostiako Onditz Memorialean

Lekeitiokoan podiumaren goi-goian izan ziren Eibar-ko ordezkariak V2 beteranoen mailan, Edu Oiarzun izan baitzen onena eta Alejandro Altuna bigarrena. Gainera, Australiatik etortitako espezialisten artean, Pello Osoro 14.a izan zen sailkapen orokorrean eta Deltecoko beste bost ordezkari helmugaratu ziren. Domekan, bestalde, Eus-

kadiko triatloi jendetsuena izan zen jokoan Onditz Memorialarekin. Australiako eta Kanadako espezialistak garaile izan zituen proban, Alejandro Altunak eta Aitziber Urkiolak podiuma eskuratu zuten, hirugarrenak izan baitziren V2 beteranoen mailan eta 23 urtetik azpikoetan, hurrenez hurren. Beste hamabi taldekidek hartu zuten parte hor.



18 urtera arteko gazteen %10 eskubaloian dabil

Atzo zen egitekoa Portalean Eibar Eskubaloia-aren urteko batzarra, denboraldiaren balantzea, berrirako plana eta kontu ekonomikoen argipenarekin. Positiboa izan da klubaren kirol balantzea, maila guztietan txapelketetako azken faseetara iritsi baita. Hor dugu, esate baterako, senior taldea: Ohorezko B mailara igotzeko fasean izan da eta Euskadiko Kopan finalerdietara iritsi zen, Asobaleko Bidasoari gerra emanaz. Azken denboraldian 70 neska-mutil inguru hasi ziren eskubaloian eta, honez gero, herriko 18 urte arteko gazteen %10 Eibar Eskubaloian egiten du kirola. Datorren denboraldian baliteke mutilen beste senior talde bat sortzea eta, bi denboraldi barru, neskena ere iritsi daiteke; guzti horrek beharrak handitzen ditu eta entrenatzailer lanetan laguntzeko prest leudekenak euren izena eman dezakete eibareskubaloia@gmail.com helbidean.

Gros Xake Taldea berriro ere garaile Kruzeta Memorialean

22 talde eta 90 xakelaritik gora elkartu ziren Jose Mari Kruzetaren omenezko Eibarko Hiria 30. xake txapelketa jokatzeko, Eibarren taldeka inoiz jokatu den lehiaketarik handie-

nean. Donostiako Gros Xake Taldearen laukoteak 66 puntu eskuratu zuen eta bi puntu eta erdira sailkatu zen Arrasate-Arlutz eta laura Abadiño 3. postuan. Ricardo Bastida, Jon Arana, Xabier Beorlegi eta Mikel Baenak osatu zuten Deporrekoko taldea eta, 41 punturekin, 12. postuan sailkatu zen. Deporrekoko Emilio Jose Freirek eta Jose Antonio Garridok Ermuko taldearekin jokatu zuten eta Guillermo Llorente gure herriko beteroana Añorgako taldearekin etorri zen.



14 domina Urbateko igerilarientzat Gipuzkoako txapelketan

Asteburu honetan jokatuko diren Euskal Herriko txapelketen aurrekari gisa hartu zuten Urbateko igerilariak Tolosan aurreko asteburuan jokatuak Gipuzkoako txapelketa. Eibarko taldeak 15 igerilariarekin joan zen Tolosara eta 14 domina lortu

zizuten banakako probetan; lana biribiltzeko, gainera, errelebotan ere bikain jardun zuten, proba guztietan podiumetik gertu geratzeko. Asteburu honetan nagusiek Gasteizen jardungo dute eta infantilek Santurtzin.



ANGELA BAGLIETTO ARRIZABALAGA

I. urteurrena: 2013-VII-18

Oin dala urtebete juañ ziañan, tia, baiña badakizu betirako egongo zarala gure bihotzetan. Bizitzaren astinduen aurrian erakutsi dozun tinkotasuna goratzekua izan da benetan, baiña ez zengozen bakarrik, maitte izan zaittugunok zure albuan egon garelako beti eta, bizitzak emon detsun momentu onenetan be, hian izan garalako zure irribarriaz gozatzen.

ESKERRIK ASKO BIHOTZ-BIHOTZEZ EMON DESKUZUN MAITTASUNAGAITTIK

38 tiratzaile San Juan tiro txapelketan

Ekainaren 21ean Hezkuntza Esparruan haizezko armekin jokatu-tako San Juan tiro txapelketako 24. edizioak 38 parte-hartzaile izan ditu, jubenil, junior eta senior mailatan banatuta. Ohikoa denez, Dinbi-Danba tiro elkarteak antolatu du txapelketa hori oraingoan ere. **Argazkian**, jubenil eta junior mailako irabazleak euren sariekin.



Deporreko atletak bikain Espainiako txapelketan

Azken asteburuan Huelvan jokatu-tako kadete mailako Espainiako atletismo txapelketan Eibarko Klub deportiboko ordezkariak ondo baino hobeto moldatu dira eta, horrela, Jone De Castrok brontzezko domina eskuratu zuen jabalina jaurtiketan, Andoni Egurrola 4.a izan zen modalitate berean, eta Julen Teran 4.a izan zen altueran eta 6.a jauzi hirukoitzean; eurekin izan zen Markel gutierrez ere, taldekideei laguntzen.

Kepa Zamakola errugbilaria Ordizia talde handira



Eibar Hierros Anetxeko bigarren lerroko jokalaria jautzia emango du datorren denboraldian Ohorezko B mailatik Espainiako talde onenen ligara pasatuta, hor Ordizia Rugby Elkartearekin jardungo duelako. Zamakolak 23 urte ditu, 1,91eko altuera eta 99 kilo pisatzen ditu eta Julen bere anaiarekin Euskarianseko selekzioan jokatu du dagoeneko.

Giro pilotako San Juan txapelketako finaletan

San Juan pilota txapelketaren finaletako jaialdiak giro polita izan zuen, zapatu goizean jokatu arren. Finalen aurretik benjaminen (Ibarrak 16-12 irabazi zion Arrietari) eta alebiren (Ferrerok 16-11 gairitu zuen Gisasola eta, binaka, Zamakola-Azkargorta 22-14 Sanchez-Kamina baino gehiago izan zen) partiduak jokatu ziren. Helduen mailan, Bengoetxeak kaiolaren barruko txapela jantzi zuen beste behin, oraingoan Txurrukari 22-16 irabazita, 4-13 galtzen joan eta gero. Eta binaka Perez-Lizarralde nagusitu zen Zubizarreta-Agiresarobreraren aurrean, partidu gogorraren ondoren 22-13 irabazita.

Urteak joan, urteak etorri, kirolari emana

Jose Mari Arrazolak inor gutxi egiten duena jarraitzen du egiten. Horrela, ekainaren 21ean Huescako Sabiñanigon jokatu den Treparriscos proban hartu zuen parte (azken urteotan Quebrantahuesos entzutetsuaren proba motza egiten du) eta 90 kilometroak lau ordu eta 33 minututan osatu zituen. Hilabete honetan 77 urte egingo dituen Arrazolak beterranoenari ematen zaion garaikuarra jaso zuen hirugarren urtez.



Bolo-palma torneoa domekan



Bolo-palmako Eibar Hiria torneo-ko 28. edizioa jokatu da domeka eguerdian, oraingoan Ermuko P.B. Montañesa eta Eibarko Casa Cantabriako ordezkarien artean erabakiko dena. Neurraketa eguerdiko 12.00etan hasiko da, betiko moduan, Ipuruako bolatokian.

FLORA ARANBERRI LASKURAIN

(2014ko ekainaren 21ean hil zen, 92 urterekin)



"Beti gure bihotzetan izango zara, maittia"

ETXEKUAK

Eskerrik beruenak nahigabian lagundu deskuzuen danori



Lambrettak, motorrak berotzen

Uztailaren 12an eta 13an gurean egingo den Lambretta Eibar XI. Kontzentrazioarako girotzen joateko, hilaren hasieratik herriko hainbat dendatan Lambretta motorrak ikusteko aukera dago (hilaren 10era arte). Urtero lez, Eibarko Lambretta Klubekoek egitarau bete-betea prestatu dute hurrengo astebururako: zapatuan parte-hartzaileen akreditazioarekin amaitu eta jarraian erakusketa zabalduko dute Untzagan. Ondoren, San Kristobalگو jaiekin bat egitera joango dira, kalejiran, eta han bazkalduko dute. Informazio eta erreserbak egiteko clublambrettaeibar@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo, bestela 660 674 299 / 655 145 801 telefonoetara deitu.



Litofania tailerra musutruk

Eibarko Udalak workshops proiektuaren barruan litofaniak eratzeko eta sortzeko tailerra antolatu du, 3D inprimagailuak eta "processing" ingurua erabilia aintzinako teknika praktikan ipini nahi dutenentzat. Ikastaroan parte hartzea dohainik da, baina parte hartu nahi dutenek alde aurretik eskaera egin beharko dute, Juan San Martin liburutegian (Portalean), hilaren 9ra arte (gutxienez 6 ikasle eta gehien jota 12 onartuko dituzte). Matrikula-orria liburutegian bertan, Pegoran zein www.eibar.net helbidean eskuratu daiteke. Uztailaren 15ean edo 16an, 16.00etatik 20.00etara egingo den tailerra Arquimañak emango du, Portalea eraikinaren azken solairuan dagoen Armagintzaren Museoa.



Haritz Leteren saio berria

Bart estreinatu dute ETB1en Haritz Lete eibartarrak eta Maria Amolategi aurkeztutako "Stars. Izarrak Kalean", Pausokak eta Euskal Telebistak elkarlanean ekoiztutako musika lehiaketa. Datozen asteetan garatuko den saioan 16 lagunek hartuko dute parte. Atal bakoitzean lau lehiakide ezagutuko ditugu Maria Amolategi aurkeztearen eskutik eta, jarraian, lehiakide bakoitzak ordu-bete izango du ikuskizuna prestatu eta Haritz Lete zain izango den txokoren batean, kalean abesten hasteko. Kaleko jendeak aukeratuko du saio bakoitzeko irabazlea eta bosgarren atalean lau finalistak elkarren aurka arituko dira. Final nagusian gailentzen denak 1.000 euroko saria jasoko du.



Uda margoen bidez ezagutzen

Domekan itxiko dute aurreko asteaz geroztik Topalekuan ikusgai dagoen "Marguen bitartez, uda ezagutu" izenburuko erakusketa. Oier Ugarteburu, Ignacio Epelde eta Monika Penedoren margolanak ikusi nahi dituenak argi ibili beharko du, oraingoan erakusketa ordu-tegi berezian zabalduko dute-eta: gaur 17.00etatik 19.00etara egongo da zabalik eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.00etara.



BELEN GALDOS ALBERDI

(2014ko ekainaren 29an hil zen, 87 urterekin)

"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN".

Bere aldeko MEZA egingo da uztailaren 6an (domeka), eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokiari.




Lau txapelkun Arrateko jaietako bertso-afarian

Bertsolari Txapelketan txapela lortzea zer den dakiten lau bertsolarik jardungo dute aurtengo Arrate Bertso Afarian: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzalluz izango ditugu irailaren 7an, Kantabria jatetxean, ...eta kitto!-k antolatu duen bertso-afarian. Sarrerak, lehenik eta behin, ...eta kitto!-ko bazkideentzat salduko dira, 30 eurotan eta bazkide bakoitzeko sarrera bat. Uztailearen 7tik 18ra salduko dira ...eta kitto!-n bertan, 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara. Bazkide ez direnentzat, berriz, uztailearen 21etik aurrera salduko dira 31 eurotan, Sagar Bitza, Kultu eta Kantabria tabernetan.



Amets Arzalluz Euskal Herriko txapelkun etorriko da aurten Kantabriara.



Muñoaren "Ainarak herrira itzuliko dira" kalean

Ataramiñek Ibon Muñoa Arizmendiarieta eibartar presoaren bigarren liburua, "Ainarak herrira itzuliko dira" argitaratu berri du eta lan horren aurkezpena datorren aste-ko egunean, uztailearen 10ean egingo da Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan, 20.00etan hasiko den ekitaldian. Aurkezpenean parte hartzen, besteak beste, Mitxel Sarasketa eta Jon Etxabe egongo direla aurreratu dute antolatzaileek eta, amaitzean, pintxo-potea egiteko asmoa daukate.

laburrak

SAN KRISTOBALGO JAIAK

Datorren asteburuan ospatuko diren San Kristobalگو jaietarako prestatzen joateko, bihar 16.00etatik aurrera tute txapelketa jokatzeko hasiko dira auzoko tabernetan eta egunean, berriz, 19.00etan futbol txapelketa hasiko da Alkorta tabernan. Toka-txapelketa gauean, 22.00etan hasiko da Xanian.



ANTZERKIA

Gaur gauean antzerkiarekin agurtuko dituzte udako saioak Kultukoek. Asteazkenean zehar ikus-entzunezkoak eman dituzte gauero eta gaur, berriz, 22.00etatik aurrera "Hipo y condrias" aurkeztuko dute San Andres elizako klaustroan Markus & Juanmanolok.



(B) Diru (B)eltza, enplegu (B)eltza

"A" gizarte lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

www.ekonomiagardena.net

Gipuzkoa
BERRIA

○ Aitzindariak hasi dira .eus erabiltzen

92 entitatek osatzen dute domeinu berraren lehen erabiltzaileen zerrenda; horiekin bat egiteko aukera izango da irailaren 16tik azarora 18ra. Ekainaren 29tik aktibatuta dago sarean .eus domeinu izena, erakunde publiko, enpresa, hedabide eta euskalgintzako zein euskal kulturako elkarte eta erakundeekin, tartean Eibarko Udala, CodeSyntax eta Dantzan.com eibartarrak. Proiektuaren hurrengo fasea irailaren 16an hasiko da eta domeinua erabili nahi dutenik azarora 18ra arteko epea izango du te domeinu izenak eskatzeko, eta horiek abenduaren 3an aktibatuko dira. Euskararen nazioarteko Egunarekin batera.

○ Iazko kopurua diru-laguntzetan

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak iazko kopuru bereko diru-laguntzak aurkeztu ditu: 43 milioi eurotik gora. Bi zatitan banatzen da kopurua: 41 milioi diru-laguntzetan eta bestea hitzarmenetan. Aurten deialdi berrira sortu dute, nagusiki gaztelaniaz aritzen diren hedabide idatzien edizio digitalerantz euskara gehiago erabiltzeko; euskara bultzatzeko proiektuek kontsumitzaileen zati eraginkorak beharko dute izan. Diru-laguntzak honela banatzen dira: HABE (31 milioi), euskarazko hedabideak (5 milioi), LanHitz (bi milioi), EBPN (milioi eta erdi) eta euskalgintzarako, gaztelaniazko edizio digitalerako eta IKT-erako milioi bana.

euskararen txokoa

Eibarko Kantuzaleak geratu barik

Eibarko Kantuzaleek uztailearen 13an Otxandion abestuta agurtuko dute ikasturtea, baina kurtsoa agurtu aurretik martxa betean ibili dira han eta hemen, giro ederrean euskaraz kantatzen. San Juan bezperan Egogain gerontologia zentruan abestu zuten eta aurreko asteburuan, berriz, Akondia baserrian egon ziren saioa eskaintzen, urtero sanjuanetan egiten duten konjuroa girotzen.




Harixa Emoten urrian berriro

Juan San Martin liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatutako literatur tertuliek hileko lehen martitzenetan izango dute hitzordua urtik aurrera. Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" izango da irakurri beharreko lehenengo liburua eta tertulia, idazlearekin batera, urriaren 7an, martitzena, egingo da arratsaldeko 19.00etan Portalean. Antxon Narbaizak dinamizatuko ditu saioak. Izen-ematea irailaren 1etik 12ra egingo da, liburutegian, eta behin izena eman eta gero jaso ahal izango da liburua. Plaza mugatuak dira.

Argazki erakusketak nonahi

Deporreko argazkilariek uztaileko hainbat erakusketak prestatu dituzte. Hileroko martxari jarraituta, tabernak erakusketak areto bihurtu dituzte oraingoan ere: Klub Deportiboan **Alejandro Ponce de Leonen** argazkiak ikus daitezke eta El Ambigun, berriz, **Jose Luis Irigoienenenak**. Erakusketak biak hilaren amaiera arte egongo dira martxan. Eta Eibartik kanpora ere Deporrekoen lanekin gozatzeko aukera izango da: uztailearen 20ra arte **Juan Antonio Palaciosen** argazkiak Bergarako Aroztegi aretoan ikusgai egongo dira eta **Fernando Retolazaren** "Nepal hiria ta mendia" izenburuko erakusketak, berriz, Sorailuzeko Kultur Etxean bisitatzeko aukera izango da, hilaren 19ra arte (astegunetan 17.00etatik 20.30etara eta zapatuetan 12.00etatik 13.30era).



JOSE ANTONIO AGIRRE ARRIOLAREN 3. URTEURRENA (2011-VII-4)



**"Bihotz-bihotzetik,
ez zaitugu ahaztuko"**

ZURE FAMILIA



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: publizitatea@etakitto.com



Zorionak, NAIÁ, ekaiñaren 27xan 10 urte bete zenduazena. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NORA!!! Aurreko domekan 11 urte egin zenduazena. Besarkada bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, LIER, San Fermin egunian 4 urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta, batez be, Oierren partez.



Zorionak, MALEN, ekaiñaren 22xan hiru urte egin zenduazena. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUGATX, ekaiñaren 25ian 10 urte bete zenduazena. Etxekuen eta, batez be, Zoihartzen partez.



Zorionak, NEREA Mallia Moreno, hillaren 9xan lau urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NAIÁ, gaur bost urte betetzten dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Leireren partez.




Zorionak, NAIARA, atzo hiru urte bete zenduazena. Muxu bat aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, OINATZ, martitzenian 10 urte egin zenduazena. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ANETTE, domekan bi urte betekoz dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIREN eta PAULA, haraiñegun urtebete egin zenduena. Zuen anai Danel eta famelixaren partez.



Zorionak, LORE (uztaillaren 22xan bederatzi urte egingo dozuz) eta JON (bi egin zenduazena ekaiñaren 28xan). Famelixaren eta lagunen partez.

Zorionak, IZARO eta LUR, aurreko eguaztenian bost urte egin zenduzena. Amama, Asier, Txus, Ane eta Mirenen partez.



Zorionak, SILBIA, hillaren 1ian urtiak egin zenduazelako. Laztan haundi bat. Ondo ospatu.



CORO ZUBICARAY AGUIRREGABIRIA

2014-VI-23an hil zen, 72 urterekin

“Ama ezin hobea izan zara. Zure alaitasuna eta maitasuna beti egongo dira gure bihotzetan. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza”

SENARRA ETA ALABAK



ITZIARCO AMA

CORO ZUBICARAY AGUIRREGABIRIA

2014ko ekainaren 23an hil zen, 72 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, **eskerrik asko** gure ondoan egon zareten guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



BARIXAKUA 4

AMAÑAKO JAIAK

19.00. Jaietako txupinazoa, Ipurua gimnasia erritmikako klubaren eskutik.

19.00. Kalejira, Oiartzungo Zo Zongo elektro-txarangarekin.

20.00. Umeendako joko-jaialdia, Gorritirekin.

21.00. Entziero txikia.

23.30. Kontzertua: Mala Puta, Porco Bravo eta Dead Bronco. Amañan.

ANTZERKIA

22.00. "Hipo y Condrias" (Markus&Juanmanolo). San Andres elizako klaustroan.



ZAPATUA 5

AMAÑAKO JAIAK

11.00. El Corte Ingles IV. Maskota Lehiaketa, 3. solairuko terrazan.

12.00. Umeendako Aire Libreko pintura, Amañako plazan. Jarraian, marrazki guztiak ikusgai jarriko dira plazan.

16.30. Umeendako parkea: gaztelu puzgarriak, zezen mekanikoa eta espuma-jaija.

18.00. Amaña-Urko-Amaña El Corte Ingles Sari Nagusia herri-krosaren irteera.

19.00. Txokolate-jana, ume guztientzat.

19.15. Pintxo-potea.

19.15. Umeen danborrada, Ermuko Irulitxa txarangak lagunduta.

21.00. Entziero txikia.

22.45. Suzko erroberak. Pirotecnia Zaragozana.

23.00. Helduen danborrada, Ermuko Irulitxa txarangarekin.

00.30. Berbena, Scorpio orkestra nafarrarekin. Amañan.

SAN KRISTOBAL JAIAK

16.00. Tute txapelketa. Auzoko tabernetan.

UMEENDAKO TAILERRA

18.00. "Malabar-pelotak". El Corte Ingleseko terrazan.

DOMEKA 6

AMAÑAKO JAIAK

11.00. Auzoan hildakoen eta eibartar guztien aldeko meza, Amañako parroikian.

12.00. Salda eta txorizoa bildutako guztientzat, Amañako plazan.

13.00. Lorontzi lehiaketa, Amañako plazan.

18.15. Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en ikuskizuna.

19.15. Txorizo-jana eta potea.

19.30. Txokolate-jana, ume guztientzat.

20.15. Golden Apple Quartet laukotearen emanaldia. Amañan.

KONTZERTUA

12.30. Usartza txistulari bandaren kontzertua. Untzagan.

EGUENA 10

SAN KRISTOBAL JAIAK

19.00. Futbolin txapelketa. Alkorta tabernan.

22.00. Toka-txapelketa. Xania tabernan.

LIBURU AURKEZPENA

20.00. "Ainarak herrira itzuliko dira" Ibon Muñoaren liburuaren aurkezpena. Topalekuan.

ikastaroak

✓ Makers: Litofania tailerra

Noiz: Uztailak 15 edo 16an, 16.00etatik 20.00etara, Armagintzaren Museoa.

Izen-ematea: Uztailaren 9ra arte, Juan San Martin liburutegian (doan).

diru-laguntzak / bekak

✓ UEUren ikastaroetarako

Onuradunak: 2013ko irailaren 1etik 2014ko uztailaren 31ra UEU-ko ikastaroetan matriculatutako eibartarrentzat.

Eskaerak aurkeztea eta informazioa: **irailaren 30era arte**, Pegoran eta www.eibar.net helbidean.

✓ Enpresa berriak sortzeko

Eskaerak aurkeztea eta informazioa: **urriaren 15era arte**, Debegegan (Azitaingo indurrialdean).

Informazioa: www.debegesa.com


hildakoak

- Esperanza Gonzalez Aja. 83 urte. 2014-VI-19.
- Ines Iñarra Aizpurua. 85 urte. 2014-VI-20.
- Vicenta Azkarate Zubizarreta. 98 urte. 2014-VI-20.
- Montserrat Madina Mardaras. 72 urte. 2014-VI-20.
- Flora Aranberri Laskurain. 92 urte. 2014-VI-21.
- Antonio Bermejo Rodriguez. 77 urte. 2014-VI-21.
- Teresa Garagarza Osoro. 78 urte. 2014-VI-22.
- Koro Zubikarai Agirregabiria. 72 urte. 2014-VI-23.
- Teodora Bilbatua Elorza. 96 urte. 2014-VI-25.
- M^o Jesus Izquierdo Garcia. 80 urte. 2014-VI-25.

- Andres Garate Ormaetxea. 63 urte. 2014-VI-26.
- Encarnacion Teruelo Ferreras. 65 urte. 2014-VI-26.
- Jorge Bustinduy Alviaz. 66 urte. 2014-VI-26.
- M^o Dolores Usobiaga Osa. 90 urte. 2014-VI-27.
- Milagros Zubia Gobantes. 80 urte. 2014-VI-28.
- Belen Galdos Alberdi. 87 urte. 2014-VI-29.
- Alejandro Travieso Peña. 97 urte. 2014-VII-1.
- Carmen Etxaburu Barbarias. 81 urte. 2014-VII-1.
- Feliciano San Millan Vigueña. 89 urte. 2014-VII-1.
- Florentina Duro Ereño. 85 urte. 2014-VII-2.

jaiotakoak

- Ayoub Banou. 2014-VI-16.
- Markel Mateos Montero. 2014-VI-17.
- Ireni Peixoto Movilla. 2014-VI-18.
- Libe Arizaga Aranberri. 2014-VI-18.
- Osama El Moussaqui. 2014-VI-20.
- Inaya Haque. 2014-VI-20.
- Manar Aghbalou. 2014-VI-22.
- June Ballesteros Diez. 2014-VI-24.
- Uxue Dominguez Sanchez. 2014-VI-26.



erakusketak

✓ Uztailaren 6ra arte

"MARGUEN BITARTEZ, UDA EZAGUTU"
(Oier Ugarteburu, Ignacio Epelde eta Monika Penedo). *Topalekuan*.
ORDUTEGI BEREZIA: gaur 17.00etatik 19.00etara eta bihar eta etzi 12.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.00etara.

✓ Uztailaren 10era arte

LAMBRETTA MOTORREN erakusketa.
Herriko dendetan.

✓ Uztailaren 20ra arte

JUAN ANTONIO PALACIOSEN argazki erakusketa. *Aroztegi aretoan (Bergaran)*.

✓ Uztailaren 31ra arte

ALEJANDRO PONCE DE LEONEN argazki erakusketa. *Depor tabernan*.
JOSE LUIS IRIGOIENEN argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan*.

farmaziak

✓ barixakua 4

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)

✓ zapatua 5

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ domeka 6

EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

✓ astelehena 7

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ martitzena 8

EGUNEZ **Golkoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✓ eguaztena 9

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ eguena 10

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ barixakua 11

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI

Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etarik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egutegia: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13.

DONOSTIA-EIBAR. Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

lehiaketak

✓ Asier Errasti 15. Film Laburren Jaialdia / Javier Agirresarobe saria

Sailak: Fikzioa eta animazioa (kasu bietan DVD formatoan).
Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 3ra arte, www.eibar.net / www.planocorto.es; cultura@eibar.net; 943708435 telefonoan.

✓ Indalezio Ojanguren XXVII. Argazki Lehiaketa

Lanak: Gehienez hiru argazki zuribeltzean eta hiru koloretan (inoiz saritu barikoak).
Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 3ra arte, Portalean.

		7						3
	1		8	2	5	7		
4	9			6				
			8					6
	8		3	5	2			1
5				1				
				3			7	9
		5	6	9	8		3	
1						6		

SUDOKUA

5	6	2	4	1	7	8	3	9
8	7	1	2	3	9	5	4	6
3	4	9	8	5	6	1	7	2
9	3	7	5	2	1	6	8	4
4	1	6	7	8	3	9	2	5
2	5	8	9	6	4	7	1	3
1	9	3	6	4	8	2	5	7
7	8	5	3	9	2	4	6	1
6	2	4	1	7	5	3	9	8

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko etxea salgai Amanian. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 70 m². Garajea eta trasteroa egiteko aukera. Tel. 943-530556 eta 686-679518.

1.2. Errentan

– Gizonezkoak etxe txikia hartuko luke alokairuan. Tel. 603-225505.
 – Pisu berria alokagai Eibarko erdialdean. 2 logela, egongela, 2 komun, balkoia eta garajea. Igogailua. 75 m². Jantzita. Tel. 685-728995.
 – Pisia alokatzten da Donostiako Gros auzoan. Ikasleentzako egokia, unibertsitateko eskolak irauten duten sasoiari. 3 logelekoa. Tel. 639-775253. Juan Andres.
 – Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-500 euro ordaintzeko prest. Tel. 632-506970 eta 632-337083.
 – Pisia alokagai Jardifneta kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 690-018786.
 – Etxea alokagai. Bikote edo lagun bakararentzat oso aproposa. 2 logela, egongela eta sukaldea. 55 m². Oso egoera onean. Argitasun handikoa. 550 euro. Tel. 687-922254.
 – Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.
 – Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-569245.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garajea hartuko nuke alokairuan Txaltxa-zelai inguruan. Tel. 645-722611.
 – Garajea alokagai Ego-Gaineko etxe berrietan (Alfan). Tel. 619-812448.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-498697.
 – Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
 – Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
 – Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-030789.
 – Emakumea eskaintzen da orduka edo asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
 Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
 Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da uda sasoiari umeak zaintzeko eta dendari jarduteko. Tel. 638-002368.
 – Mutil euskalduna eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 618-875007.
 – Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 689-391261.
 – Bikotea eskaintzen da soziedadek edo lokalak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 651-545260.
 – Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 632-836130.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta beste edozertarako. Tel. 631-110716.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-010369.
 – Emakumea eskaintzen da goizez garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 681-065683.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 695-804895.
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 638-908730.
 – Mutila eskaintzen da ganbarak garbitzeko, garraioetan laguntzeko, pintatzeko, nagusiak zaintzeko. Tel. 632-951012. Carmelo.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 680-526228.
 – Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, baita animaliak ere, eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-430985.
 – Neska eskaintzen da goizez eta arratsaldez umeak eskolara eramateko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-611454.
 – Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 674-713262.
 – Neska eskaintzen da kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 652-700744.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Baita gaez ere. Tel. 600-005160.
 – Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolako lanak egiten laguntzeko. Tel. 632-337083.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 636-779634.
 – Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 602-396115.
 – Emakumea eskaintzen da era gutzietako garbiketa lanak egiteko. Tel. 943-202391.
 – Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel. 680-808125.
 – Emakumea eskaintzen da haurrak edo nagusiak zaintzeko, baita gaez ere, eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
 – Mutila eskaintzen da arratsaldetan nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 692-304860.
 – Emakumea eskaintzen da tabernan lan egiteko eta haurrak zaintzeko. Tel. 631-282203.
 – Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko eta gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 681-065683.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita orduka, asteburuetan eta udako oporretan. Tel. 602-057896.
 – Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak eskolara eramateko. Tel. 615-755991.
 – Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.

4.2. Langile bila

– Sukaldari laguntzaile behar da Eibarreko jatetxe batean. Bidali curriculum-a Eibarko 46 posta kutsara.
 – Ileapaintzaile-laguntzaile behar da, estetikako oinarrizko ezagutzarekin. Itxura ona eta jendetasuna ezinbestekoak. Tel. 619-928881.
 – Estetizista behar da, esperientziarekin. Berehala lanean hasteko. Ekarki curriculum-a. Tel. 943-531636.
 – Emakumea behar da asteburuetan nagusia zaintzeko. Tel. 686-930915.
 – Banatzailea behar dugu, sukaldaritza oinarrizko ezagutzarekin. Tel. 686-913746.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Fisika eta Matematika klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez 4 lagunekin taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
 – Yoga klaseak emango dira uztailean eta abuztuan Deban. Irakaslea Arantza Arrieta izango da. Tel. 658-709468.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Erabili gabeko piragua salgai. Ikusteko aukera. 125 euro. Tel. 665-122368. Esther.
 – Bizikleta BH Windsor salgai. Gutxi erabili. Argia, otarra eta kandadurekin. Gel-ezko jarlekua eta ordezkoa. 150 euro. Tel. 665-122368. Esther.
 – Musika klasikoko diskoak (100) eta pop-rock-eko LP-ak salgai. Tel. 665-122368. Esther.

6.2. Eman

– 2 hilabeteko ardi txakurkumea oparitzen da. Tel. 647-952677.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Kirol poltsa beltza galdu dut Txomo inguruan. Tel. 617-467779.

6.4. Bestelakoak


– Jai-Alai, Aritzatza eta Mickey Mousse diskoteketako basoazpikoak eta popxolo-kaxak erosiko nituzke. Tel. 943-572057.
 – Eibarko historia industrialari buruzko dokumentuak jasoko genituzke (agiriak, planoak, piezak... Tel. 685-249526 eta 609-918803.

AMANA KO JAIAK

UZTAILAK
4-5-6
11-13



Etorri gozatgera!!!



Matrikula

uztailak 9tik 16ra

» Oñati gestio
heziketa



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

Oñati Gestio Heziketa	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkaritza • Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Automatizazioa eta Robotika Industrialia • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa • Mekatronika Industrialia
<p>www.mondragon.edu/ogh info.enpresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09</p>	<p>www.mondragon.edu/gmh gmh.mgep@mondragon.edu 943 73 97 65</p>









ix35 Go! Brasil

.com/HyundaiEsp

.com/Hyundai.es

www.hyundai.es

Hyundai ix35

14.990€-tik aurrera jokatzeko prest.

Mundial honetan ix35 inoiz baino prestatuago irten da zelaira. Bere ekipamenduarekin eta 184cv-rainoko potentziarekin edozein posiziotan nabarmentzen da; emisio baxuei esker eraginkortasun bikaina eskaintzen du eta Bi-xenon faroek jokoaren ikusmenik onena bermatzen dute. Baina gauzarik onena zera da, Mundial honetan pasatzen utzi ezin dezakezun prezioan fitxatu dezakezula.

OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO



NEW THINKING
NEW POSSIBILITIES.

ELGOIBAR

943 74 14 80

Olaso Poligonoa, 17.

OIARTZUN

943 49 48 30

1 Errepide Nazionala, 469 km.
(Leroy Merlin-en ondoan)

BEASAIN

943 80 40 54

1 Errepide Nazionala, 419 km.
(Hotel Castilloren ondoan)

IRUN

943 63 97 69

Juan Thalamas Labandibar, 43
Behobiarako errepidea



ix35 Gama: CO2 Emisioak (gr/km): 139-182. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,3-6,8.

ix35 FL 1.6 GDI (135CV) 4X2 ESSENCE-rako gomendatutako PSP, Penintsula eta Baleareetan, 14.990€, hilabete amaierara arte balioduna eta stock-ean dauden autoentzat. BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta Gobernuaren PIVE Plana barne. Santander Consumer EFC S.A.-ren bitartez, 48 hilabetetako gutxieneko epean gutxienez 13.500€ finantzatzen duten bezero partikularrentzat eskaintza aplikagarria. Finantza-etxearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziarioa. 2014/07/31ra arte balioko du eskaintza honek. Ikusgai dagoen modelo: ix35 Go Brasil Plus. ix35-en edozein modelo erosterakoan Hyundai-k ez du entregatzen den autoaren gutxieneko antzinasunetik eskatuko. Kontsultatu baldintzak Hyundai kontzesionarioen sare ofizialean. Salmenta berezientzat Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak bete beharko dira.